

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko abuztuaren 28a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Arakil-Uharte • Artzain zakurren txapelketa egingen da etzi Artzain Egunean.

Araceli Larrea • «Ez dut uste domina lortuko dudanik».



• MIKEL SAIZ

‘Rriskitin’:

Larraun eta Araizko doinu zaharren pausaleku

Larraungo eta Araitz-Beteluko bailaretako hamar kantu zahar jaso dituen diskoa kaleratuko du heldu den hilabetean Aralar Udal Musika Eskolak. Obraren muina ikastetxeko ikasleen ahotsak dira, baina azken urtean beste askok egindako lana ere badago atzean. Gainera, diskoa beste asmo batzuen hasiera besterik ez omen da.




Arakil-Uharte • Artzainak omontzeko festa igandean

Aralar-Mendi elkarteak antolatu egunak ez du inoiz hutsik egin sortu zenetik

Heldu den igandean 31. Artzain Eguna ospatuko da Arakil-Uharte herrian. Egun osoan zehar artzaina eta haren jardueraren inguruko lehiaketa eta erakusketak izanen dira.

ARAKIL-UHARTEKO ARTZAIN Eguna 1967an sortu zen —igandekoa 31.a da— bertako Aralar Mendi elkartearen eskutik, eta, horrez geroztik, ez du inoiz hutsik egin. «Aurretik huts egin zuen ordea. Festa sei edo zazpi urte lehenago sortu behar zen, baina ia herri osoa erre zen gau batez eta bertan behera gelditu zen», azaltzen du Aralar Mendi elkarte kide eta festaren antolatuzaile Jose Mari Ustarrozek.

Artzain Eguna sortu zenean artzain txakur lehiaketa egiten zen soilik Arakil-Uharten, egun duen ekitaldirik ezagunena. Urte batzuetara, jende asko biltzen zela ikusirik, beste zenbait gauza egiteko aukera aprobetxatu zuten. Ustarrozek komentatzen duenez. «Artzainaren inguruan dauden gauza guztiak promozionatu eta erakutsi nahi diogu honera datorren jende guztiari. Artzain Eguna izena jarri genion beraien eguna delako. Eta egitan horrela da. Ezagutzen ditugu zenbait artzain egun horretan baka-



Artzai zakur lehiaketaz gain, erakusketak eta egin ohi dira Arakil-Uharten.

• JOXE LACALLE

rrik goizetik gaueraino ator txuriakin egoten direnak. Uhartera leku askotako artzainak etortzen dira parte hartzera edo ikustera, edo eguna pasatzera, edo bere festa ospatzera». Ustarrozendako artzain izateak etorkizuna du. «Horregatik gaude hemen lanean, merezi duela uste dugulako. Ez dakit nahikoa egingo dugun, baina beraien alde behintzat bai eta orain arte egin duguna ona eta interesgarria izan da. Artzainak gero eta gutxiago dira baina ardiak mantendu egingo dira, artaldeak handitu eta beste modu

batean lan egin arren, baina hor segiko du dudarik gabe».

Makina bat lehiaketa

Arakil-Uharteko Artzain Egunaren ekitaldirik ezagunena artzain txakurren lehiaketa bada ere, igande osoan zehar lehiaketa eta erakusketak pilo egonen da artzainaren iharduera goratzeko. Hasteko, Nafarroako ardi gaztaren XVII. txapelketa ospatuko da. Urtero 50 edo 60 gazta inguruk hartzen dute parte eta ondoren enkantea egiten da beraiekin. Horretan 250.000 pezeta baino gehiago ordaintzera

ailegatu izan dira. Ardi latxaren esnearekin eginiko gaztak onartzen dituzte soilik arraza hori babestu, gorde eta hobetu egin behar dela uste dutelako. Helburu horrekin ere ospatuko dira Nafarroako ardi latxaren XV. erakusketak eta esne emankortasunaren txapelketa, eta Nafarroako ardi mozte mekanikoaren X. txapelketa.

Egun gozagarri horretan Euskal artzain eta Pirinioetako artzain txakurren VI. erakusketak ere egiten dute. Ustarrozek ustez, jendeak ez du behar hainbat ezagutzen zein den euskal artzain txakurra

eta zeintzuk diren hemen erabiltzen diren beste zenbait txakur mota. «Txakur bat zer den, nola den edo nola izan beharko luke erakutsi nahi diegu. Nafarroan gehienak dira Gos D'Atura motakoak (katalanek eman zioten izena). Pirineo guztian dago zabaldua. Hemen euskal artzain txakurrak badaude ere, nahiko gurutatuak ordea. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, Gorbea inguruan batez ere, orain euskal artzain bezala tesi batek katalogatu duena dago (laster nazioarteko izendapena jasoko du). Gauza guzti hauek ongi erakutsi nahi dizkiogu jendeari».

Honen ondoren, ardiki gisatuaren IV. txapelketa eta dastapena eta lauhun bat lagunendako bazkaria egiten da herriko frontoian. Eta azkenik, Nafarroako XXXI. artzain txakurren lehiaketa. Bertan, Nafarroako hamabi artzainek hartuko dute parte. Hiru probak osatzen dute lehiaketa: obedientzia, artalde biltzea eta jeistesira sarrera. Hemengo txapelduna nazioarteko lehiaketara joan da, eta baita Euskal Herri-kora ere.

Honetaz landa, egunean zehar gazten eta eskuz eginiko beste produktuen erakusketak izanen dira, bai eta artzain bat gazta egiten ikusteko parada ere. Gainera euskal dantza eta musika taldeak egonen dira. Ikus daitekeenez, Uharteko Artzain egunak egitarau zabala du, jende asko erakartzeko modukoa eta Ustarrozek dioenez eguna osorik ikustea merezi du.

→ Asier Azpilikueta

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Bazegoen mutil aberats gaixo bat bere burua ezinbestekotzat zeukana, zori-ona soilik urrez, edertasunez eta gaztetasunez jantzirik etortzea espero zuena eta ondorioz askoren adiskidantza mespretxatzen zuena, gauzak eta jendeak berez, inolako eginahalik egin gabe beti beregana etorriko zirela uste zuena. Hortaz ingurua zaindu beharrean, zikinduz eta ustelduz zebilena.

Bazegoen noizpait jakintza eta zuhurtzia galdutako artzapezpiku bat, baita jakingabezi gorrian bizi izandakoak ere zekiena, baliorik gabe utzi nahi zuena. Alegia, hiesari aurre egiteko preberbatiboek ez zutela balio esaten zuena, eta po- breei geratzen zaien azken gozamina ahalik eta

Bazegoen

gehien mugatu nahi zuena. Norberaren haragiaren plazerrak, auskalo zeren truke, debekatu nahi zituena.

Bazegoen baita jende xumearen iritzia, ahoak esparadrapoz ixten ezabatu nahi zuen epailea. Lege-gizon ospetsua laister ohartuko zen, eskuak solteak geratzen zitzaizkiela erizpidunei eta segidan estaldura kendu eta garraxi handiagok botatzeko gauza zirela. Ikasi gabe zeukan nuntz bait epaile zorigabeak iritziak ez direla horren errez desagertarazten eta ideiak eta ideiak gizon-emakumeen bizitza baino askoz ere iraunkorragoak direla.

Bazegoen emakume beltz bat bere kolorea harro aldarrikatu orde zurrak xaboez zuritu nahi

zuen, eta zimelduriko amodioak berreskurazienak zirela uste zuenik ere bazen, eta gure artean denek zer jantzi eta egunero zer jan bazutela sinisturik zegoen beste bat, eta maitemintzea inoiz gertatuko ez zitzaion zerbait zelakoan beste husteriatan ibilitako bat edo beste ezagutu dut eta noizpait urrundutako lagunengana hurbiltzea ezinezkotzat jotzen duten batzuk bizi dira gertu eta adiskidantza zabortegira bota ondoren fereka batekin berreskuratu nahi duenik ere bada.

Han hemenka dabilta ere maitasun eta adiskidantzen mugetan galdu eta aurkitzen direnak. Inozokeri galantetan gabiltza sarturik. Noizpait jakin beharko genuke ezinezkoa dela dena eta aldi berean ia guztia posible.

Lizarra • Turismoa gora egiten ari da etengabe

Ega ibaia zeharkatzen duen hiriak gero eta udatiar gehigo hartzen ditu

Uztailean 6.000 lagun inguru bildu ziren Lizarrako Turismo Bulegora. Joan den urteko datuekin alderatuz gero, aurten kopurua igo egin da, Egako hiriak 2.500 bisitari gehiago izan baititu.



Hainbat erromes iragan dira Lizarratik udan.

● MIKEL SAIZ

Donejakue Bidea egiten dutela adierazten duen txiria lepotik zintzilik dutela nonahi ikusten dira erromesak; gipuzkoarrak ere badira han eta hemen, udako giro beroaren bila etorriak; atzeritarak zer esanik ez, Lizarrak dituen Erdi Aroko eraikin eta elizetako artea miatzen. Horixe da Ega ibaia zeharkatzen duen hiriak udan duen itxura, bertakoa kanpokoarekin nahasten da, mosaiko bitxia osatuz.

Kanpotar gero eta gehiago hartzen dituen seinalea da Lizarrako Turismo Bulegoak iragan uztailean 5.974 bisitari jaso izana. Joan den urtean, berriz, 2.500 lagun gutxiago izan zituen. Beraz, turismoa gorantz doala esan daiteke.

Turismo Bulegoko iturrien arabera, udatiar gehienak Euskal

Autonomia Erkidegotik datozenak omen dira. Hain zuzen, hango 1.171 bisitari hurbildu dira Lizarrara. Horien atzetik frantziarrak datoz (640 bisitari), eta ondotik espainiarrak (584) eta katalanak (355). Azkenik, Europako beste eskualdeetako lagunak dituzte Egako hirian oporretan. Isabel Rivas, Turismo Bulegoko arduradunaren esanetan, gainera, uztaileko eta abuztuko hilabeteek bisitari ezberdinak jaso ohi dituzte. «Abuztuan hurbiltzen direnak gehiago dira Espainiatik etorrira-

koak eta uztailean, aldiz, nabaria goa da nazioarteko turismoa», dio. Rivasen iritziz, Lizarra Donejakue Bidearen derrigorrezko pasabidea izateak omen dakartza hainbeste «atzeritar» hirira. Hala ere, argudio hori garrantzitsuena bada ere, ez da bakarra. Ingurugiroa, eguraldi eguzkitsua, jaki onak, kulturak eta arteak ere badute eraginik. «Hemengo mendiak, bailarak, ibaiak, erakusketak, jaialdiak eta arte erromanikoa bereziki erakarriak dira bisitariarentzako», gaineratu du.

Isabel Rivasen hitzetan asko dira behin etorri eta hurrengoan ere Lizarrara hurbiltzen diren turistak, eta batzuk urtero-urtero errepikatzen dute. «Oso arrunta izaten da jendeak egonaldia errepikatzea. Dena den, asko aurrenekoz datoz. Batzuek paraje edo eraikin berezi baten informazioa nahi izaten dute, eta besteek, besterik gabe, hiria bisitatu». Azken hauentzako ibilbide berezia prestatua dago eta hirian barna bisita turistiko gidatua egiteko aukera eskaintzen da.

Amaia Cayetano eta Maria Puy Azkona dira gida turistikoak egiteaz arduratzen diren Guiarte enpresako bi gazteak. Ibilbidea La Rua kalean zehar egiten da. Aipatu karrika Burgoa izan zen eta hiriko merkatal gune garrantzitsuenetako bat. Ordu erdian, beste gauza batzuren artean, bisitariak ikus ditzazke: San Pedro Eliza, klaustroa, Fray Diego Kultur Etxea, Gobernadorearen Jaurregia eta Hilobi Santua. Oraindik Lizarrara hurbildu ez dena garaiz dabil, abuztuari gelditzen zaizkion egunetan ere bisitok egiteko ordutegia zabalda baita. Izan ere, orotara egunean zehar zazpi aukera daude: goizetan 11:00etan, 12:00etan, 13:00etan eta 14:30etan; eta arratsaldetan; 17:00etan, 18:00etan eta 18:30etan.

→ Kristina Berasain

Bera

Agerrako bestak asteburuan

BERAKO AGERRA AUZOAK BERE BESTAK ospatuko ditu asteburu honetan. Aurten, berrikuntza gisa, bertsolari gazteen saioa eta quad motorren lasterketa izanen dira.

Bestak bihar hasiko dira, eguerdiko 12:30etan botako den suziariarekin. Ondotik, buruhandiak eta erraldoiak auzoan barrena ibiliko dira. Eguerdian ere, futbito txapelketako finalak jokatuko dira.

Arratsaldean, 15:30etan haurrentzako jokoak izanen dira, eta ondotik berendua izanen dute. Hiru ordu beranduago, 18:30etan, Agerrako krosa korrituko da, inguruko korrikalarien bilgune izan ohi dena, eta Luis

Mari Apeztegiaren oroimenean egiten dena. 19:30etan berrikuntza nagusienetakoa izanen den quad motorren lasterketa korrituko da (lau gurpleko motorrak). Gaueko 21:30etan Gure Txokoa elkarteak dantzariak dantza saioa eskainiko dute, eta ondotik Bortzietako bertso eskolako gazteek bertso saioa eskainiko dute. 23:30etatik aitzinera Xirimiri taldearekin dantzaldia izanen da.

Igandean, eguerdiko 11:30etan buruhandi eta erraldoiak aterako dira. Auzoko pilotalekuan Berako gaztetxoaren arteko pilota partiduak jokatuko dira, eta 13:30etan herri kirolen erakustaldia izanen da. 14:30etan, urteroko zikiro jatea egiten dute auzotarrek, eta ondotik toka eta auzokideen arteko herri kirol probak jokatuko dira. Iluntzean, 20:00etatik aitzinera, Xirimiri taldeak joko du berriz Urruña plazan.

→ Jon Abril

Agoitz

Nafarroako Pirinioetan barna bizikleta lasterketa

NAFARROAKO PIRINIOETAN BARNA I. Mendi Bizikleta Saria korrituko da udazkenean. Txirindulariek sei proba dituzte aukeratzeko Pirinioetako paraje ezberdinetatik barna. Pirinioetako Turismo Partzuergoak antolatuta du lasterketa, eta, udan ez ezik, Pirinioetako herriak udaberrian eta larrazkenean ere mugitzeko asmoarekin sortu da ekimena. Jose Etxegoien, Pirinioetako Partzuergoko kudeatzaileak dioenez, partzuergoaren «betiko asmoa izan da udaberrian eta udazkenean ekitaldiak anto-

latzea zonaldean. Horrela, ideia sortu eta martxan jarri da», diosku.

Proba irailaren 6an, igandean, hasiko da, Agoitzen, eta hurrengo beste bost igandeetan beste hainbat lasterketa egiten dira Pirinioetako beste hainbat tokitan. Bigarren lasterketa irailaren 20an egiten da Erronkari eta Garde artean. Hirugarrena, berriz, urriaren 4an izanen da, eta Auritzperri eta Auritzen tartean korrituko da. Hurrengo biak urriaren 11an eta 18an egiten dira; lehena, Zaraitzu eta Otsagi arteko tokiren batean; eta bigarrena, Aezkoa eta Oroz-Beteluko parajeetan. Azkenik, frogari amaiera emanen dion azken lasterketa Irunberrin egiten da. Ibilbideak zirkuito itxiak izanen dira, bost eta zortzi kilometro artekoak eta, adinaren arabera, bira gehiago edo gutxiago eman beharko dituzte.

→ Uxue Zabaleta



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Beatriz

Gure bizitza osoa alde zurretik idatzia dagoela sinesten dut. Ematen du etorkizun zabal eta ireki batekin jaio egiten garela, baina keba. Jaiotze mementuan bertan gure heriotzeraino doan lerroa idazten da, eta, mapa batean, zas, marrazten du patuak; eta gainontzeko lerroekin non eta nola gurutzatuko den ere, hori ere ikusten da mapan, eta (gauza triste hau) zein lerroekin ez den sekula gurutzatuko, eta hauek, esan behar al da?, gehiengo beldurgarri bat dira. Ematen du bizitzan zehar jende askorekin topo egiten dugula, baina, kia, bost katu dira. Madagaskarko biztanle guzti-guztien lerroak, adibidez, gure lerroekin ez dira sekula santan gurutzatuko. Benetan: oso jende gutxi ezagutzen dugu eta ezagutzen duguna patuarengatik da. Beatriz esate baterako. Bera Sevillakoa da. Ni Iruñekoa. Lehengo egunean mundu hontan ibiliz, Beatriz eta biok, bakoitzak berea, egiten ditugun bi lerro independente horiek Mercaderes kalean gurutzatu ziren: idatzia baitzegoen berak Donejakue bidea egingo zuela, Iruñean Erromeskarneta galdu eta nik aurkituko nuela lurrean. Karneta zabaldu eta «Beatriz» irakurri nuen, irakurri baino dastatu. Beatriz. Mmm. Beatriz. Bapatean nire bizitzako neskalaguna izan zitekeela ohartu nintzen. Horra bada, pentsatu nuen: patua. Maitemintzen hasia nintzela alegia. Urduri xamar erromesen aterbera joan nintzen San Cernineko elizara. Gure lehen harremana! Nik bere izena barietate behintzat, bainan berak...ezta hori ere! A ze sorpresa emango nion! Atea zabaldu eta hara!: «Hola. A! karneta! milesker! Ez da ezer. Hartuko dugu garagardo bat?». Patuaren mezularia sentitzen nintzen atean jo nuenean. Ez zuten ireki. Txirrria jo nuen. Automatikoki frantsesez galdetu zidaten ea nor nintzen, zer nahi nuen. Beatriz esan nuen nik. Beatriz Sevillakoa. Ixiltasuna. Hemen ez dago inongo Beatrizik esan zidaten geroxeago. Bale. Seguraski Amaier ikastolan jarri duten beste erromesaterpe hortan egongo zen. Bainan hori iturraman dago. Urruti xamar. Bera erromesa da bainan ni ez, pentsatu nuen. Ez nintzen joan noski. Seguraski hau ere alde zurretik idatzia zegoen.

'Rriskitin': Larraungo doinu zaharrek bildu dituen lana

Bailarako garai bateko kantuak bildu dituen diskoa kaleratu du aurki Aralar Udala Musika Eskolak

Hainbatetan Larraungo herrietan bila ibili eta gero, bailarako hamar kantu zahar jaso dituen disko bat kaleratu du heldu den hilabetean Aralar Udala Musika Eskolak. Begi-bistara obraren muina ikastetxe-ko ikasleek ahotsak badira ere, azken urtean beste askok egindako lana ere badago atzean. Gainera, diskoa beste asmo batzuen hasiera besterik ez omen da.

Una planeta, salsa mison Kanutison, kanutison. Xunbe, xunbe dela «tronpeta». La rriskitin, rriskitin «Kitarra». La zirrinkitin, zirrinkitin «bioliña». La ttunkuttun, ttunkuttun, «danbolina». La flilitin, flilitin «lailola». Bolon eder!

Abesti horrekin hasten da Larraungo Bailarako hamasei herrietan eta Araitz-Beteluko sei etan ahotik belarrira belaraldiz belaraldiz iragandako kantak bildu dituen *Rriskitin* diska. Kitarrak behatzekin jotzen denean hartzen duen doinu onomatopelkoak, riskitinak, eman dio izena lanari. Izenburuak dioten moduan, kitarrak eragiten zaitzuten zuten duen ohiartzun sakona eta gozoa izan nahi luke lanak euskal kanta maite dutenengan.

Diskoari azken orduko ukituak egin eta gero, heldu den hilabetean kalera-
tuko da. Nolanahi ere, aurre-
tik hainbatetan lana beharrez-
koa izan du argia ikus zezan.

Duela lau urte Larraungo Kiximi kultura gazte taldeak hasitako material pilaketaren ondorioa da lana. Kiximi jadanik desagertu den arren, hainbat herriz-herri etxeetan zoko-miran ibili eta gero kanta zahar asko aurkitu zituzten. Mintxasuneko Lekunberriko Kultur Etxeko jendeak, eta bailarako Aralar Udala Musika Eskolako ikasle batzuek Jose Jabier Irigoien eskolako zuzendaria gidari zutela gehiengoarentzako ezezagunak ziren kultur arloko hainbat material zegoela ohartu ziren. «Diskoa ahalegin baten azkeneko produktua izan da. Mintxasuneko eta Aralar Udala Musika Eskolako ikasle batzuek hasi ziren material bat sortzen. Artxibotetan arakatu: Iruñeko Principe de Vianan, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean eta Eresbilen ikusi



Jose Jabier Irigoien:

«Hemengo eskolan erakustea ez ezik, beste musika eskoletan ere eredutzat hartzea nahi genuke, ohartzera ikasle batzuek zer-nolako produktua atera dezaketen herri bakoitzean dauden tresnekin. Guretzat oso garrantzitsua da eredu izatea»

genuen bazegoela Larraungo Bailarako kultur arlo ezberdinetako material ugari. Horien artean bazeuden ipuinak, kontakizunak, esaera zaharrek eta noski musika», azaldu du Jose Jabier Irigoienek. Nafarroako zein Gipuzkoako hiriburu eta aipatu dokumentazio zentruetan egindako miaketaren ondorioz, Aita Donostiak, Resurrección Maria de Azkuek eta Lekunberriko Aita Modestok utzitakoak aurkitu zuten. Arian ariz, Larraun eta Araitz-Beteluko bailaretako 120 kanta lortu zituzten.

Mende hasierakoak

Larraungoak ez ziren gehienak apalean utzi, eta besteak sailkatu zituzten Aralar Udala Musika Eskolako kideek. Baina disko batean hainbeste kopurua sartzea askotxo zenez, galbaha pasatu eta hamarrean utzi dute lana. Testu guztiak bertako euskararen dira eta badira egun erabiltzen ez diren esamolde asko. «120 kanta horietatik Lekunberri-Larraungoak ziren bederatzita eta Araitzko bat hartu ditugu. Sailkatu ondoren ikusi genuen gai ezberdinetako kantuak bagenituela. Abesti gehienak laburrak dira baina denetarik dago: erlijio kantak, haur-kantak, ipuinak, jalarrekin zerikusia dutenak eta Larraungo herrietan buruzko kantak. Nolabait, argitzen dute orduko giroa eta abesten hainbat pasartek hitz egiten dute orduko egunerokotasunaz eta herri bakoitzaren ezaugarriez», dio Aralar Udala Musika Eskolako zuzendaria-
riak.
Testuak mende hasierakoak dira. 1903ko data dute abestien testu batzuk eta Irigoienek dioenez bertako zahar-

rrentzat ere asko ezezagunak dira. «XIX. mende bukaeran XXko hasieran bildutako abestiak dira. Gure asmoa herriz-herri ibiltzea zen eta hasi ginen Utzin, Arruitzen eta Azpiroten kantak biltzen baina lan asko zenez utzi egin genuen. Hemengo zaharrek ezagutzen dituzte batzuk baina gehienak ezezagunak dira. *Una planeta* kanta jende askok moldatu duena agertzen da, adibidez», gaineratu du.
Sailkatutako hamar kantuak: *Una Planeta, Zubi berria, Lendabiziko ort, Horra sei bertso kale garbitzaileari, Allitik ekarri du, Gorritira bidean, Gure*

Ideia baten lehenengo urrats

Aralar Udala Musika Eskolako Araitz-Beteluko eta Larraungo Euskara Zerbitzuaren eta udalen languntzerekin ateratako lanak segida izan nahi luke. Azken finean *Rriskitin* kantu zaharren diska ideia baten lehenengo urratsa besterik ez omen da bultzatzearen irudiko. Kantak ez ezik, Larraun zein Araitz-Beteluko bailaretan Kixmik egindako bilketan badira aprobetxatu daitezkeen beste lan asko. «Hemen erabili izan diren 400 esaera zahar baino gehiago, hainbat kontakizun eta sineskeriak biltzen dituzten pasarteak aurkitu ditugu eta horiek ere irtenbidea eman beharko genieke», azaldu du Irigoienek. Lan horiek

egiteko diskaren arrabaldiak nahi lukete, eta *Rriskitin* ataratuak diren diskaren proiektu kulturalak behintzat ez zaizkie finkatu. Beteluko dantza domoan litzuzkeen diskaz hitz egin zuzendariak. «Orain gutxi bitartean mailan geratu da dantza arloan Araitzen ere beste proiektu polita. Dan-
gari dira bailara horretan dantza kaleratzea espero dugunak gure kulturaren intxurak zabaltzerantz urrutira ez dela joan. Baina hori, orainoz behintzat, beste-
berik ez da.



Diskaren lehenesten grabatzen, Aralar Udala Musika Eskolako ikasleak.

etxean, Larraungo zortzikoa, Errekonduan lizarra eta Nere maite egungo doinueta egokitzea Koldo Pastor, Arantxa Ezkurra, Jesus Garisoain eta Tomas Porto musika ikasleena izan da. Arantxa Ezkurra Burlata Musika Eskolako irakasleak esandakoaren arabera Aita Donostiak hartutako ereduaren arabera egin dira kanten doinuak. Berak *Una planeta* eta *Nere maitea* amodiozko abestiak egin du. Ezkurraren aburuz, askotan ahaztuta edota artxiboren batean inork gutxi ezagutu gabe dauden «gure aurrekoen» kantuak eza-



Diskoak jaso dituen kantak ikasteko urte osoan aritu dira entseguak egiten Aralar Udala Musika Eskolako ikasleak.

MIKEL SAIZ

→ Irene Arrizurieta

Allitik ekarri du (Etxarriko kontakizuna)

Allitik ekarri du
Arruize zakurre;
Eztegu pagatu
lanbide makurre
Bost aldiz eman diot
Boltsatik apurre,
Ori dabillen artzai,
kapelu makurre.

Madotz eta Oderitz,
Astiz ta Mugiro;
Orietan Jainkoak
Zerbait eman digu.
Baribar ta Irebes
Goazen Allire;
Orietan ez omen da
Errateko diñe.

Gorritire bidean
Atia latz dago;
Espazin bakarrarekin
Oñian otz dago.
Anakla galdu ezkerro,
Gizonik ez dago;
Gorritarren bildurrik
Uitzin ez dago.

Uitzi Lekunberri
Etxarri ta Aldatz;
Pobre gertatu dira
Aurten lurrek babaz
Arruiz ori bidea
Guzien burue,
Or izanen omen da
Saltzeko modue.

Errazkin da Albisu
Azpiroz Gorriti;
Baban pasia libre
Kamio berri.
Amazazpigarrena
Or dago Lezeta;
Ikazkin baterikan
Erri hortan ezta.

Azpiroz aldapatik
Albisure joan;
Triste neukan biotza
Angoxe basoan;
Zerk jarri ote zidan
Albisu gogoan!
Iñola ere burutik
Ezin kendu nuan.

gutxera emateko modurik egokiena da. «Beti ere, betiko doinuak gaurkoekin uztartuz, adibidez nik jazz eritmoak sartu ditut ere», azpimarratu du.

Dena dela, Irigoienek nabaritu duenez, proiektuaren arima Aralar Udala Musika Eskolako ikasleak izan dira. «Grabaketa go-gorra izan da, urte osoa egon gara larunbatero entseguak egiten 26 gazte eta ni neu. Eta kanta batean Lekunberriko Gazte Abesbatzak ere hartu du parte», diosku pozik zuzendariak. Uztailaren lehenengo astean Azkarateko Katarain estudioetan grabatutako diskoan musika eskolako gazteen ahotsak txistua, silbotea, akordeoia, pianoa, kitarra eta perkusiorekin nahastu dira.

Tokian tokioa kanpoan ezagutarazi

Rriskitin diskoan Aralar Udala Musika Eskolak bilduta dituen kanta guztiak ezagutuko ez badira ere,

Larraungo eta Araitz-Beteluko bailaretan topatu daitezkeen altxor kulturalaren eredu ere izan nahi du lanak. Irigoienek arabera, ez dago beste inora joan beharrik kanta eta horiek interpretatuko dituzten jende egokiaren bila, bertan badituztelako. «Gure helburua hemen ezagutaraztea eta erakustea izanik, nahi genuena zen hemengo jendeak bertako produktua sortzea», dio. Finean, tokian tokiko kantekin kalitatezko produktua lor daitezkeela uste du zuzendariak. «Hemengo eskolan erakustea ez ezik, beste musika eskoletan ere eredu bezala hartzea nahi genuke. Ohartzera ikasle batzuek zer-nolako produktua atera dezaketen herri bakoitzean dauden tresnekin. Guretzat oso garrantzitsua da eredu izatea. Askotan egoten gara kanpotik zer produktu etorriko den zain. Horri ere begiratu behar zaio baina konturatu ez haren eredu guk sortu dezakegula gure produktua», gaineratu du.

Baina ez da hori buruan duten asmo bakarra, bi bailaretan eta ondoko herrietan ez ezik, Euskal Herriko beste eskualdeetara ere zabandu nahi baitukete. «Produktua Larraundik eta Araitzetik ere atera nahi genuke eta eskolak dituen aukerak erabili: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Iparraldeko musika eskolekin kontaktatu baditugu eta elkartruke moduan gure produktua hara eramanez nahi genuke. Azken batean, ezagutaraztea eman, nahiko maila ona sortu da eta giroa ere ona da eta hori aprobetxatu behar da», bukatu du.

Kaleratu ez ezik, behar bezala aurkezteko asmoa ere badute egileek. Azkezpena Kultur 98 egitarauaren barruan izanen da Gorritur frontoian, heldu den irailaren 12an, 21:00etan. Ekitaldian parte hartuko dute ere, beste batzuren artean: Altsasuko Aintzindari dantza taldeak, Euskal Herriko Txistulari Elkarte txistulariak, Garbife Sertutxa akordeoilarik, Bestalde, Natxo de Felipe Oskorri taldeko kideak eginen du aurkezpena.

Bien bitartean, eta gelditzen diren beste kanta guztietan zer egin erabakitzen duten bidenabar, 1.500 pezetatan salgai jarri dituzten 1000 konpaktoak (60 libera), eta 1.000 pezetatako beste 500 kasetak harrera ona izanen dutelakoan daude.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Kaperako Lezioa: azkenaurreko mendarte tekla-bidean (K-Z)

Atxagaren *Groenlandiako lezioa* irakurri berri eta, azpimarragarri beharreko guztiak beste baterako utzirik eta Asteasukoak eskeintzen digun euskarri literarioaren praktikoari muzin egin barik, XVIII. eta XIX. mendeen arteko bulta musikalean barrena bidazti alfabetikoa proposatzen da.



LEKEITIKO ORGANUJOLEA 1775. ean **Kamara** musikaria izan zen. Jose Inazio **Larramendi** arrasaterra, ordea, Arantzazuko frantxikotarren komentuan organojole zegoen. Honek *Método nuevo para aprender con facilidad el canto llano y la salmodia* izenburuko lan teorikoa 1828. ean eta Madrilen argitara eman bazuen ere, guk orok kantari darabilgun *Donostiako Iru damatxo* kantaren balizko egilea izateagatik ezagunagoa dateke, Blas de **Laserna** korellarrak *La Vizcaína* tonadillan erabili zuen doinua ere bestalde. 'L' hizkia zaigu oroz gain emankor, eta Juan Andres **Lonbide Mezquia** hainbatetan agertu zaigun Santiagoko basilika bilbotarrean organujolea dakarkigu mamitsu. Gure Lonbide aita, Elgetan sortu zen 1745. ean - **Larramendi** handiak hiztegi hirukoitza agertarazi zuen ber urtean-, alabaina bizkaitar zitzai zaitaion izaita eta gogoa; 1772. ean Herriaren Lagunen Elkartekoei klabe eta bibolineko sei sonata eskeini zizkien, eta 1775. ean *Arte del organista* izenburuko lan teorikoa ere; haatik, labor joan zitzaizkien elkarkideei Lonbidek eskeini zizkienak, bada, 1778. ean Oviedoko eliznagusiko organojole izateko oposaketan gailendu baitzen, eta 1786. ean, berriz, Madrilgo Enkarnazio komentuko erret kaperakoa, non 1811. ean joan zitzaigun. Irunen jaio zen 1758. ean Jose Joakin Tadeo **Murgia**, 1789. eko maiatzaren 14an **Malaga**-ko eliznagusiko organojolea izateko azterketan nagusitu, bertan ezarri, eta bertan 1836. eko abuztuaren 10ean hil zen ber. Hagitz tre-bea organoan -Haydn eta Mozarten berebiziko jarrailea-

arras inprobisatzaile ona ere izan omen zen -Andaluziako musika herrikoiak zeharo eragindua-. Bere lanik gehienek argitara gabe darraite, Malagako eliznagusiko artxibategian, eta nabarmengarriak diren pianofortarako sonatez gainera, ondu zituen flamenko, tirana, bolero eta poloak aipagarriak dituzkegu. Domingo Maria izeneko anaia Oiarzun eta Tolosan izan zen organujole, eta honen seme batek, osabaren izen zein Malagako lan-postu berberak hartu zituen. Bidankozeko organujolea 1785. ean **Nikolau** jauna genuen; urte bertsuetan, berriz, Donostiako kapera-maisua Migel **Oruña**, eta Tafallako organujola Manuel **Oses**. Honezkerok ezagun dugun Albénizen aita, Mateo Antonio **Pérez de Albéniz** genuen -ez dakigu, ordea, zer dela eta galdu zuen abizen erdia gure Pedro Albénizek-. Esan bezala, Logroñotik Donostiara aldatu zen, hango Santa Mariako organujole. Horrez gainera ere, lan teoriko baten egilea bazen izan: *Instrucción metódica, especulativa, y práctica para enseñar a cantar y tañer la música moderna y antigua*, Donostian 1808. ean agertua. Teorikoekin jarraituz, Iruñeko eliznagusiko salmista zen Fermin **Ruiz de Galarreta**-k *Nuevo método completo teórico práctico de canto llano y figurado* izenburuko 1848. ean atera zuen, eta Salvador Maria **Rementeria** muxikarrak -fraile jeronimoen habitua eskeintakoa zena- *Cantus planus universa-*

lis 1835. ean, *nahiz Nuevo método de canto llano reformado* 1859. ean karrikaratu zituen. Jose **Sobejano** Alala iruñarrak Mina gerrilariaren aginpean borrokatu ondoren Iruñeko, Bilboko eta Leongo kapera maisu zein organojole izan zen. 1827. ean Madrilen ezarri zen nobleen seminarioaren irakasle eta San Isidroko ikastetxean organujole. *Escuela de solfeo según el estilo moderno* -Madril, 1835- edota *El Adam español, lecciones metódico-progresivas de forte piano* -Madril, 1826, Louis Adam Parisen 1802. ean erabilitakoei jarraikiz- ikas-liburuez gain, musika erlijiosoa, *La huerfana del Rosellón* lan dramatikoa- rentzako obertura, dantzak, martxa militarrek, eta abar luzea konposatu zuen. 'T' lettran gaudela, aipa dezagun Pedro Aranaz eta Vides, **Tuteran** 1740. ean jaio zelako. Cuencako kapera-maisu eta organujolea zela 1820. ean hil zen. Bere ekoizpen musikala lan errezek osatzen dute, zailtasun gabekoez, horri esker ikaragarri ezagutu zirenak, esaterako *El remedo de los toros* edo *La maja limonera* tonadillak. Idazki teoriko bat ere ondu zigen, *Tratado de contrapunto y composición* izenburuduna. Ibilbide alfabetikoari, hortaz, amaiera emateko, ekar ditzagun bada Manuel **Uribe** Iruñeko organujolea 1767. ean, eta Santiago **Zamakola** Bilboko organujolea 1768. ean -azken hau Juan Antonio Zamakolaren anaia apezka ote zen? Baietz uste dugu-



etorri ahalean

Patziku Perurena

Zazpi/zortzien segizioaz

BEHIALA HIRUTIK LAURA iragotzeak, eta gero hamabitik hamahirura pasatzeak bezala, zazpitik zortzira pasaerak, badirudi zori aldaera adieraziten duela gure balada zaharretan. Muga sakratu dira guziak: *hirua, zazpia, hamabia*, eta horiek gaintzeak, badirudi, zori aldaera eta maiz zori gaitza dakarrela. Haratx aztarren batzuk: J.M. Satrustegik kanta haxe jaso zuen Urdiainen: «San Juango iturriaren ondok / zazpi iturri urre kainuetatik / zortzigarrena metal zurietatik». Eta hala dio ondoren: «Habla de siete fuentes con caños de oro y una octava de metal blanco. Desconocemos el emplazamiento de ellas. Lo que sí nos consta es de la existencia de tres, al menos en las inmediaciones de Urdiain». Berez literatur sinbolo baizik ez den «zazpi/zortzi» kontu hori, zinezko zifratz zeukan nonbait. Esate bateko, **Alostorre** izeneko baladak, zorigaitza garbiro aipatuz indartzen du nere ustea, honako ahapaldi honetan: «Etxe eder leio bage honetan / enaiz sartu zazpi urte hauetan / eta zortzigarrenean neretzat zorigaitzean». Mikel Laboaren ahots sorginari esker ezagutu genuen hartan ere bai: «Zazpi errota berri / Zortzi jauregi txuri / Orienguziengatik ni Urtsuara ez nari». Eta gero, hara zer aurkitu zuen: «Lantainako alaba Urtsuan defuntu dago». Egia esan: *zazpi/zortzi* artean heriotza ageri da maizen. Inoiz azaldu izan dut, gure literaturan *zabia igarotzeak* adierazten duen zori aldaera. Hara nola ageri den, *zazpi/zortzien* lumero jokoaz indartua: «Bordegarairen zaldie / lau anketan da xurie / zazpi pausotan pasatuten dau / zortzi arkuko zubie». Berdabioren zaldia berdin, eta baita Santa Felizia hilotzik gainean zeramanak ere. Leienidak dio, Felizia, Amokainen neska-me zela bere anaia hil zuela,

eta gorpua gainean paratzean zaldia ez zuela gelditu lasterrik Labiano jo arte, eta hantxe bertan eman ziotela lurra santa frantsesari. Horregatik baladak diona: «Petirigorrin zaldia / lau atzetan zuria...» Zenbat sinbolo pilaturik arketipo literario horretan. Zaldi gainean doa ihesi beti gaizkilea (heriotz egilea jeneralean): *Bordegarai, Berdabio, Petirigori* (Feliziaren anaia)... Zaldiak beti, *lau aztalak xuri*, aparteko bizitasunaren adierazle; zubiaren proba pasa beharko du beti, gainean daraman gaizkilea hartan galdu edo salba dadin; eta gainera, beti zazpi pausotan irago zortzi arku. Txiritaren ezkontza haundiro asmatu hartan bezala, zezena erruz azaltzen dira ezteietan. Honatx Behorlegiko bertso-lari zaharrak Azkueri kantatua: «Txoria dago pinpirinetan etxe huntako leioetan / Zazpi zezen ilen tuzte primu horren ezteietan / Zortzigarrena toreaturen konpainiaren ohoretan». Bizkaialdeko *Zazpi Nobio* izeneko baladak, berriz, honela dio Ruperren ahots ederrean: «Zazpi nobio euki dodaz urte bi terdien / zortzigarrena deukot iñozko larrien». Eta azken bertsoan hala dio: «Baina nik euki neban ezkondu gurea / ta niri emon eusten erretiradea». Zazpi nobio izan ditu neskatxak, eta hala modukoak direlako bazter utzi; eta justu zortzigarrenak, bere guztizko duenak, bera utzi du asmo galduan. *Frantziako Anderea* izeneko baladan igoal berean: «Zazpi izera dodaz odolaz mantxaturik / zortzigarrentxu onek narroia mundutik». Amak ez du nahi semea Frantziako Korteko neskatzarekin ezkon da, eta erregin frantsesak ondasun guziak eskaini arren, alperrik: «Arek neuretzat baina, ez itxi bizirik»; eta puinalez hil du amaginarrebak. Eta holaxe, beste balada zahar askotan. Eta ele zaharretan berdin: sinbologia berbera du *zazpi/zortzien* segizio horrek.

Ziria

• Motxorrosolo •

Gonbita

SARA, ETXALAR, ERRATZU, BAIGORRI, GARRALDA, DONIBANE GARAZI, OTSAGI edota Maule, Biltokiarenak ez du garrantzi handirik. Bidarraitar bategen funtsik gabeko aldarrikapenez higuindurik, aspaldi esana, muga zila-tzeko era bakar harremanena da, gisa orotako harremanena. Uda garaia tenore hona da «mugakideen topaketak» antolatzeko. Itsasu, Baigorri, Baztan-Bidasoa, Amikuze eta Erronkari aldean ez da esperientziarik falta.

Araceli Larrea

☉ Irristalaria

«Lan ona egin dezaket, baina ez domina lortzeko modukoa»

Barañainen gaur hasi eta irailaren 6ra arte iraunen duen Munduko Patinaje Txapelketan beste 30 herritako irristalarirekin indarrak neurtzeko aukera izanen du Araceli Larreak. Berriki Frantzian ospatu zen Europako Txapelketatik zortzi domina ekarri zituen. Oraingoan ahaleginak eginen dituen arren, ez du uste lepokorik lortuko duenik.



● MIKEL SAIZ

soslaia

Araceli Larreari anaia ikusiaz sartu zitzaion irristarako gogoia. Hortaz, bost urterekin hasi zen irristatzen orain gutxi arte bizileku izan den Iruñeko Txantrea auzoko irristarien taldean. Iruindarrak 26 urte ditu eta gaur hasiko den mundiala zazpigarrena izanen du. Aste osoa Larrabideko Kirol egoitzan koitzentratu eta entrenatzen egon eta gero, bihar korrituko du lehen frogia.

Egun Errotxapea auzoan bizi da eta Nafarroako hiriburuko kirol denda batean egiten du behar. Entrenamenduek eta lanak ez diote beta handirik uzten nahi duena egiteko. Beraz, lagunarekin lasai egoteaz gain, ahal duen guztietan zinemara joaten dela dio etsita.

Mundiala eta gero ez daki patinatzen jarraituko duen. Foruzain izateko oposaketak prestatzen ari bada ere, etorkizuna «zintzilik» omen du. «Miguel Indurain Fundazioarekin zer gertañu zain nago. Badirudi haren bidez dirulaguntza hobeagoak jasoko ditugula eta horren arabera ikusiko dut zer egin. Askotan pentsatu dut hemen eginen den Munduko Txapelketa eta gero patinajea uztea, gogorra baita oso lana eta kirol hau tartekatzea», bukatu du.

gure arteko lehiak maila lortzen lagundu digu.

■ Maila handia duzue, baina oihartzun gutxi, ezta?

Bai, tamalgarria da ez dugulako kasik laguntzarik. Baditugu Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Aurrezki Kutxak ematen dituzten kirol laguntza batzuk baina azken ordura arte ez duzu jakiten emanen dizkizuten ala ez. Aurten oraindik ez dira atera eta zain gaude tartean oraindik abiatu ez den Miguel Indurain Fundazioko proiektu bat dagoelako. Dena geldidago eta erakundeek ez dizute asko laguntzen. Ez dakit nola lortu dezakegun hainbeste hain laguntza gutxirekin. Dirulaguntza milioi erdia eskas izaten da (20.000 libera) eta patin pare batek 150.000 pezeta balio du eta maiz aldatu behar izaten dizkiozun gurpilak 50.000 pezeta. Beraz, atera kontuak.

■ Txapelketarako prestaketa fisikoz gain, psikikoa ere landu duzue kirol psikologian aditua den Idoia Salsamendi psikologoarekin. Zertan lagundu dizu?

Patinatzaile batek prestaketa, oso ona izan dezake baina buruak huts egin diezaiolke.

Prestaketa psikologikoa oso garrantzitsua da eta oraindik ere asko dugu lantzeko. Batzuetan buruak egiten dit huts, asko kostatzen zait sinistea egoera batzue-

tan ongi noala eta garaipena lor dezakedanaz ohartzea. Alderdi psikologikoa duela bi urte hasi zen lantzen eta obekuntza nabaritu dugu. Sakrifikatze borondate handia dut. Nahiz eta gauzak maldan gora jarri, jarraitu eta jarraitu egiten dut eta hori, hein handi batean, psikologoarekin ere landu dut.

■ Noiztik ari zara prestatzen?

Urte osoan aritu naiz, baina gogorra uda izan da. Gehiengo oportetean egon den bitartean, nik egunerok entrenatu behar izan dut. Egunean bi ordu entrenatu dut eta neguan larunbatero txirindulaz ibiltzera joaten nintzen taldekoekin. Igandetan bakarrik izan dugu jai. Ez dut deus berezirik egin patineekin entrenatu baino, gimnasia joateko betarik ez dudalako izan. Dena den, San Antonioko taldea entrenatzen dudanez, denbora luze egon naiz patineekin.

■ Europako Txapelketaren ostean etxean irrista egitea ez duzula gustoko zenion. Zergatik beldur hori?

Presioa handia da. Guztiak gainean dituzu. Hurruti bazaude eta gaizki egiten baduzu taldea duzu laguntzeko. Beraiei ere gauza bera gerta dakieke beste batean eta mesede bera eskatzen dizute. Hemen, aldiz, jendea oso gaiztoa da. Gauzak ongi doazenean dena loreak dira, baina okertzen hasten direnean jendeak gozatu egiten du eta hori ezin dut eraman. Iruñean egin zen Europako Patinaje Txapelketan lehenengo frogak gaizki atera zitzaizkigun eta esames asko entzun izan behar genituen.

■ Europako Txapelketako emaitzak ikusirik goian egon ziatezke?

Bai. Lan ona egin dezaket baina ez domina lortzeko modukoa. Dena den, jadanik zazpi mundial korritu ditut eta askotan gauzak ez dira zuk uste bezala ateratzen. Helmuga bezala jartzen duzu goian egotea baino hara iristea asko kostatzen da. Dominak oso garesti saltzen dira eta ahal dudana eginen dut.

→ Irene Arrizurieta

ERNE ETA ZIHUR HITZ EGITEN DU Aracelik, irristatzeko patinak jantzi eta gorputza aurreratuz hankekin maiz korritu dituen txapelketetan lortzen duen abiaduraren pareko.

■ Gaur hasten da Barañainen Munduko Patinaje Txapelketa. Zein aukera dituzu?

Mundial batean aukerak eskasak dira. Herrialde asko daude, guztiak dena ematera datoz eta urtean zehar soilik horretarako prestatzen aritu dira. Tentuz ibili behar da kontaktu kirola delako, adi egon behar duzu zure bidean norbait ez gurutzatzeko, edo norbait zu ez eusteko.

■ Zein dira zure aurkariak?

Estatu Batuetakoak dira indartsuenak. Argentinan badago nekaren bat, Kolonbian, Australian eta Italian ere. Gainera, beti herri batek edo besteak ustekaberen bat ematen dute. Asiako herriak kasu. Aurkari moduan denak kontatzen ditut. Domina zihur duten bakarrik estatubatuarak dira.

■ Espainiako selekzioan zaude ten hamasei patinatzaileetatik hamalau nafarrak zarete. Hemen bakarrik prestatzen da gogor?

Hemen harrobia asko zaintzen da eta ondorioz hemen ateratzen dira irristatzaile gehien. Nafarroak badaramatza zazpi-zortzi urte harrobia lantzen. Udal eskola asko daude eta orain gora jo du patinajeak. Gorenean dagoela uste dut. Federazioak, gainera, lan ikaragarri ona egin du eta hein handi batean hari zor diogu arrakasta. Hainbesteko harrobia egonik patinajeak maila onean iraunen du oraindik Nafarroan. Patinatzaile eta talde asko gaudenez,

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Pernandoren txilibittoa

Nik ere nire *carta desde la fe* idazteko beharra ikusi dut; gai famatu, bakarra dio lagun batek, zerorrek bezainbeste ez dakidan arren. Freuden teoriak ez ditut behar bezala ezagutzen, hala ere ziur naiz zèr esateko asko izango zuela inguru hauetan ematen den kasuaz: zintzoa izaten saiatuko naiz eta ontzat emango dut esaten duzuen praktikara eramaten duzuela, ez ditut aintzakotzat hartu zoko batzuetan entzuten diren zurrumurru maltzurak, gauza bat esan eta oso bestelako batzuk egin eta halakoak.

Berez ez dago gaizki pertsona batzuek euren sexualitatea ez bizitzearen erabakia hartzea, horrela nahi badute, orbanik gabe bizi, bejondeitela. Arazoa sortzen da ez praktikatzear gain, gure oso noizbehinkako ariketa sexualak oztopenen saiatzen direnean. Batean inmortal-tasun kontuak direla, bestean fidel-tasun eta egonkortasunaren abantailak, azkenean kondioen segurtasun eza. Eta abar. Lizunkeriaren merkatu beltzetik alde egitea erabaki badute primeran, utz diezagutela gainontzekooi gurea, saiakera behintzat. Baina ez, aldiro entzun behar dugu gure jarreraren okerraz, eta nola mundu, zeru eta infernuko gaitz guztien erantzule egiten diguten.

Arestian alpatu dudun moduan gaur egun, arrazoi ezberdinak direla medio, zaila da oso plazerraren sehaskan kulunkatzea, mirariaren mugan kokatuko nuke nik. Bertako Sodoma eta Gomorra airean eraikitako gazteluak dira, itxura izuragarria dute kanpotik ikusten die-narentzat baina barnekaldeko su eta garr oso eskasa da. Hortaz, ez luke zerorrek kezkatzeko arrazoi gehiegirik izan beharko.

Hori bai, noizean behin entzuten edo irakurtzen diren gaitzespen hitz horiek bazterrak harrotzen dituzte, erdi itzalita zegoen desioaren tenperatura ikaragarri goratuz: debekatua dagoenaren liluraz gozaten dugu eta pelikula horretan bezala leku guztietan lelo majikoa entzuten da: «Jo ezak berriro Pernan».

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Doneztebe:** Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du bihar, 21:30etan, frontoi estalian.
- **Erronkari:** Sabina Puertolas sopranoaren eta Esther Andueza piano jolearen emanaldia izanen da gaur, 20:30etan, Gazteluko Ermitan.
- **Orreaga:** Orreagako kolegiata-elizan Sarasate Laukotearen emanaldia entzuteko parada izanen da, etzi, 13:00etan.
- **Otsagi:** Oskorri taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 23:30etan, plazan.

ZINEMA

- **Barañain:** 'Wallace & Gromit' pelikula pantailaratuko da, gaur, 22:00etan, lakuan.

ANTZERKIA

- **Saldias:** Sambhu antzerki taldeak *Lenaren sekretua* lana taularatuko du frontoian, gaur, 21:30etan. Lan bera eskainiko da bihar Biurrune-ko frontoian, ordu berean.
- **Abaurregaina:** Trokolo taldeak *MisMitos* lana oholtzaratuko du etzi, kiroldegian, 21:30etan.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Ana Marinen olioak eta akuarelak ikusteko aukera dago irailaren 14a arte Bergarenea etxean.
- **Iruñea:** Eroritako monumentuan Arte erritual afrokubatarra biltzen duen erakusketa ikus daiteke irailaren 13ra arte.
- **Iruñea:** Nafarroako Museoa Itziar Alforja, Kontxesi Vicente, Eva Morant, Patxi Alda eta David Rodrigue artisten lanak bistatu daitezke irailaren 6ra arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Sex-Haizegoak Testu erotikoen IV. Lehiaketa antolatatu du. Partehartzaleek hemezortzi urtez goikoak izan beharko dute. Lanak

gutxienez 20 orrialde eduki beharko ditu eta gehienez 75. Irabazleak 75.000 pezeta jasoko du eta finalistak 25.000 pezeta. Gainera, paperean ez ezik, disketean ere igorri behar dira ondoko

helbidera: Sex Haizegoa Barañain Etorbidea 29, 31008 p.k., Iruñea. Informazio gehiago nahi duenak 948-17-72-99 dei dezake. Lanak eramateko epea 1998ko ilbeltzaren 31an bukatzen da.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Munabarrak laztantzen nau. Gero neri begira geratzen da, berataz mintzo naizela baleki bezala.



JOAN BROSSA

Gorputza baita gorputzeko atalik nekagarriena.